Horrela, herritartasun aktiboa sustatzea eta parte hartzea bultzatzea elkar uztartzen diren kontzeptu eta metodologia bezala ulertzen ditugu. Biak hala biak, helburu eta bide dira. Komunitate baten parte diren, parte hartzen duten eta horren dinamizazioan eragile diren herritarrak nahi ditugu; eta, horretarako, komunitatean txertatutako zerbitzu baten beharra dugu, haur eta gazteak komunitatean parte har dezaten eta bertako eragile izan daitezen. Hain zuzen ere, Gaztematikan herritartasun aktiboa eraikitzeko bi ikasketa-tresna nagusi erabiltzeko hautua egin da: Herritarren parte hartzea aktiboa eta herritartasun aktiborako hezkuntza.

Herritarren parte hartze aktiboa: Parte hartzen parte hartuz ikasten delako, eta parte hartzea bera ikasketa-prozesu iraunkor gisa ulertzen dugulako.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Herritartasun aktiborako hezkuntza: Parte hartu ahal izateko gaitasun eta konpetentzia jakin batzuk garatzeko aukera izan behar dugulako. Ezinbestekoa da hezkuntza ez formalaren bitartez, herritartasuna egikartzeko beharrezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta aukerak ahalbidetzea. Nolabait, norbanakoek eta kolektiboek parte hartze aktiboa garatzeko dituzten aukeren artean desoreka nabarmenak daudelako: Bazterkeria egoerak bizitzeko arriskuak handitu direlako; eta generoak, klaseak, hizkuntzak, etniak, funtzio aniztasunak eta abarrek, eragin zuzena dutelako. Hain zuzen ere, hezkuntza bihurtu da, desoreka eta desberdintasun horien aurrean, aukera berdintasuna sustatzeko gako nagusienetakoa. Eta hori bideragarri egiteko, ezinbestean, hurbileko profesionalen beharra dugu.

4. ZERBITZUAREN XEDEA.

Zerbitzuko xede nagusia da Ibarra haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzutea, bai nortasun pertsonala garatzearekin zerikusia dutenak eta baita garapen soziala garatzearekin zerikusia dutenak ere. Honako hauek hartzen dira besteak beste behartzat:

- Babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzatespena izatea.
- Ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Beren familiako, taldeko eta komunitateko ingurunearekin dituzten harremanen bitartez, maitasuna eta estimazioa jasotzea.
- Pertsona gisa beren burua ezagutzea eta beren ingurunea ulertzea.
- Haur, nerabe eta gazteen osasuna babestea eta sustatzea.
- Bizitzarako trebezi, gaitasun eta jarrera baliagarriak lortu eta garatzea.
- Autonomia eta erantzukizunez aritzea: erabakiak hartzea, nork bere gain arazoizko arriskuak hartzea, aukeratzea, erantzukizuna hartzea.
- Pertsonen arteko lotura egonkorrak eta atsegin emaileak eraikitzea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea: adiskidetasuna, harreman sareak, partaidetza taldeak.
- Adieraztea, parte hartzea eta sortzea.
- Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizartean ikastea.
- Beren bizitzako protagonista sentitzea.

5. ZERBITZUAREN HELBURUAK.

5.1. Helburu nagusiak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak honako helburu orokorrak ditu:

- Haur, nerabe eta gazteak aisialdiaz gozatzea era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eratzen den kontuan izanik.
- Haur, nerabe eta gazteen garapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea, trantsizioak erraztuz.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak, nerabeak eta gazteak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.
- Esku hartzeko espazio desberdinak sortzea, eragina dutenak eta haur, nerabe eta gazteen beharretara egokituak, osagarriak direnak eta konpentsatzen dutenak.
- Herriko 6-30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteen zerbitzura dauden egitura erreferentzialak izatea, hurbilekoak eta jarraituak.
- Haur, nerabe eta gazteei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan sistema komunitario batean parte hartzea.
- Haur, nerabe eta gazteei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin.

5.2. Helburu zehatzak

Helburu nagusi horiez gain, zehatzagoak diren hauek ere bete nahi du Ibarako Udalak Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko zerbitzuaren bitartez:

- “Gazte Zulo” herriko haurren eta nerabeen erreferentziazko topaleku euskalduna izatea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Haur, nerabe eta gazteentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeke gune aproposak eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Haur, nerabe eta gazte etorkinen parte hartzea eta integrazioa sustatzea.
- Aisialdi eredu kontsumistari alternatibak eskaintzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetzeta, elkartasuna, enpatia.
- Haur, nerabe eta gazteek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- Behar bereziak dituzten haur, nerabe eta gazteek Zerbitzua erabiltzeko aukera erraztea.
- Guraso eta tutoreak zerbitzuaren partaide bilakatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea zerbitzuan, auzoan eta herrian.
- Haur, nerabe eta gazteei dagokien herriko gai eta eremu espezifikoetan erreferentziako eragile izatea.
- Haur, nerabe eta gazteak herriko espazio eta eremu publikoarekiko ahalduntzea.
- “Gazte Zulo” eremu komunitarioan erreferente eta agente aktibo izatea.
- Herriko gainontzeko eragileekin batera elkarlanean aritzea eta sare-lana gauzatzea.

5.3. Arreta eskaintza jarraitua: adin-tarteei dagozkien helburuak.

Hiru adin-tarteei arreta eskaintzen dien zerbitzu bakar batez ari gara. Hau da, zero eta hogeita hamar urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arreta publiko iraunkor, koherente eta jarraitua.

Ludikotasuna ardatz hartuta, gurasoen (0-5 urte), haurren (6-11 urte), nerabeen (12-17 urte) eta gazteen (18-30 urte) bizi-aldi bakoitzari egokitutako behar eta eskaerei zein horien arteko trantsizioei arreta eskaintzea du helburu.

Guraso txokoa:

Ibarran, beste hainbat herrietan gertatu kasu, hainbat gurasok egin izan dute euren seme-alabekin egon ahal izateko babes-leku baten eskaera. Hori dela eta, uste dugu 0-5 urte bitarteko guraso-txokoa zerbitzuaren lehentasunezko atal baino, primerako osagarri izan daitekeela. Izan ere, gurasoen parte hartze eta inplikazioa ahalbidetuko du, komunitate-loturak sortuz eta eraginaz. Irudikatu dugu gurasoek bere kasa egituratu, antolatu eta kudeatutako espazio



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

gisa. Modu autonomoan, hezitzaileen presentzia iraunkorrik gabe antolatutako sozializatorako espazio gisa.

Guraso txokoak zerbitzuaren osagarritzat jotzea proposatzen dugu, honako baldintzak betetzen dituztenean:

- Ibarako haur eta guraso orok bertan parte hartzeko aukera badute.
- Gurasoek herriko ekintza edo jardueretan eragile gisa parte hartzeko prestutasuna agertzen dutenean.
- Hezitzaileekin koordinazio-sistema bat sortzeko gai direnean.

Hori guztia kontuan hartuta, honako helburuok proposatzen ditugu zerbitzutik gurasoekiko:

- Gurasoekin harreman egonkor eta jarraitua sortzea.
- Gurasoekin elkarlanean aritzea eta haiekin ekintzak aurrera eramatea.
- Gurasoentzako interesgarriak izan daitezkeen jardueren inguruan formatzen laguntzea.

Haurren atala:

Zerbitzu honen asmoa da herritartasun aktiboa txikitatik lantzen hasteko eskaintza publikoa bermatzea, horregatik 6-11 urte bitarteko haurrekin zuzenean lan egiten hastea proposatzen dugu. Atal honen helburuak ondorengoak lirateke:

- Protagonismoa haurrari berari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan.
- Aukera berdintasuna bermatzea.
- Harremanak sortu eta sendotzea.
- Adinean aurrera doazen bezala ardurak handitzea.
- Jolas berriak eta jolasteko modu berriak ikasi eta eskuragarri egitea.
- Herri sentimendua landu eta handitzea.

Nerabeen atala:

Zerbitzuak abian jarri nahi ditu gizarte-hezkuntza ikuspegia eta izaera integrala duten erantzun eta proposamen konkretuak; hain zuzen ere, nerabeek baliabide pertsonalak eskura ditzaten dimentsio individual, sozial eta kulturalen.

Adin-tarte honetarako proposatutako helburu konkretuak honakoak dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Nerabe-izaerak ulertzen eta kudeatzen laguntzea.
- Nerabe-izaerak ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.
- Beren artean nerabe-izaeren aniztasuna ezagutu eta nerabe izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.
- Betebeharririk gabeko beren denbora betetzeko modu desberdinak, dibertigarriak, suspergarriak, partaidetzazkoak, osasungarriak eta sortzaileak ahalbidetzea.
- Jarduerak antolatzeko, nork bere burua antolatzeko eta beren denborak kudeatzeko nerabeek egiten dituzten proposamenak jaso eta gauzaten erraztea.
- Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.
- Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabearora eta nerabearotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.
- Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea.
- Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.
- Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.
- Nerabeak euren egunerokotasunarekiko ekintzaileak eta kritikoak izan daitezen sustatzea.
- Nerabeen erantzukizuneko autonomia suspertzea.
- Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu sentiaraztea eta herritartasun aktibo arduratsua gauzaten bidelagun izatea.
- Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden komunitateko heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea eta kolektiboki elkarlanean aritzea.
- Nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea herriko eragile eta agente estrategikoekin batera.

Gazteen atala:

18-30 urte bitarteko Ibarra gazteentzako ez dugu arreta zuzenerako ordu jakinik proposatzen, baina bai haien beharrei egokitutako lan-ildo zein lan-dinamika bat egonkortu eta baliabideak eskuragarri egitea. Atal honen helburuak ondorengoak dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Informazio eta orientazioa: Haien beharrak asetzeko baliagarria zaien informazioa eskuratzeko orientazioa eskaintzea.
- Garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri egitea.
- Etxabeetako gazteen erreferente izaten saiatzea behar duten informazioa erraztuz eta haiek herri mailako sarean presente eginez.
- Herriko eragile aktibo izan daitezen sustatu; elkarteen parte izan daitezen, herriko ekintza ezberdinetan parte har dezaten ahalbidetuz edota gazte talde bezala antola daitezen sustatuz.

5.4. Zerbitzua komunitatearen zati, partaide eta dinamizatzaile.

Zerbitzuak herritar aktiboak helburu izanik, harreman estua izan behar du parte den komunitatearekin. Zerbitzu honek komunitatearen parte estrategikoa izan nahi du, haur, nerabe eta gazteen protagonismoa ahalbidetuz eta, horretarako, herriko dinamizazioan arituz.

Herri mailako sareak ezagutu, sortu eta dinamizatzea du bide zerbitzuak, erabiltzaileak komunitateko kide aktibo izan daitezen. Horretarako, honako lanak hartuko ditu beregain:

- Herriko sareak ezagutu eta elkarlana bideratu.
- Herriko gainerako talde eta eragileekin koordinazio bideak sortu eta egonkortu.
- Herriko eragileen eta haur, nerabe eta gazteen arteko ezagutza eta elkarlana ahalbidetu.
- Herriko baliabideak eta ezagutzak konpartitzeko bideak, harremanak, guneak edota espazioak sortu.

Komunitate eremuaren garapenari dagokionez, honako helburuak proposatzen dira:

- Komunitatearekiko haur, nerabe eta gazteen alorrean aitzindaria, berritzailea eta ekintzailea izatea.
- Zerbitzua komunitatean haur, nerabe eta gazteen erreferentziazko agente bilakatzea.
- Komunitatean haur, nerabe eta gazteenganako interesa piztea.
- Ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea, zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan txertatzea.
- Komunitatearen dinamiketan parte aktiboa izatea eta haur, nerabe eta gazteek protagonismoa izan dezaten lan egitea (jaiak, elkarteen egitarauak, txapelketak, jarduerak, ...).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Zerbitzua sare lan-sistema komunitarioan kide, eragile eta dinamizatzaileria izatea.

6. ZERBITZUAREN KUDEAKETA.

Ibarrako Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak ezarritako helburuak betetzera zuzenduta egongo da.

Oro har, erakunde edo enpresa esleipendunak Ibarrako Udalak zehaztutako orientazio eta arauak beteko ditu.

Zerbitzuan bi lan eremu nagusi bereiziko dira: alde batetik, arreta zuzena, hau da, haur eta nerabeekin egin beharreko esku hartzea eta Zerbitzua eremu komunitarioan garatzea, eta beste aldetik, zeharkako arretaren barruan, funtsatzea, planifikazioa, koordinazioa eta antolaketa.

6.1. Zuzeneko arreta.

Ibarrako "Gazte Zulo" da haur eta nerabeen zuzeneko arretarako toki nagusia; hala ere, beste espazio batzuetan -hala nola, kalean, lokaletan- lan egiteko dinamikak sustatuko dira, beti ere Kultura eta Gazteria sailaren zuzendaritzapean.

Zuzeneko arretaren ardatza izango da profesionalak garatutako hezkuntza esparru egokitu, proaktibo eta integratzailea, izaera komunitarioduna. Esku hartzea jarraitua izango da, hezkuntza prozesuen jarraipena bermatuz.

Harreman hezitzailea izango da esku hartzearen funtsezko tresna. Harreman hori enpatikoa izango da, elkarrenganako konfiantzan oinarritua. Hezitzaileak prest egongo dira unean uneko laguntza emateko nahiz bidean laguntzeko. Hautzarotik nerabezaroko eta nerabezarotik gaztarorako trantsizioaz arduratuko dira. Zailtasun egoeran dauden haurren eta nerabeen parte hartzea ahalbidetuko da.

Zerbitzuak ondorengo ekintza arloak eskainiko ditu:

- *Informazioa:* haurrei, nerabeei eta beren familiei eskainiko zaizkie eskura dituzten baliabideak eta aukerak esparru edo sistema batzuetan (kultura, hezkuntza, kirola, gizarte zerbitzuak, osasuna, etab.). Informazioa emango da eraginkortasunez eta modu antolatua eta adierazgarrian.
- *Orientazioa:* laguntza emango da haurrek eta nerabeek bizitzako esparru ezberdinetan garatzeko dituzten aukerak ezagutzeko eta baliabideak erabiltzeko. Era berean, egoki irizten diren kasuetan, bideratuko dira haur eta nerabeen beharrei hobeto erantzungo dieten beste eragileengana.
- *Bide laguntza:* haur eta nerabeei laguntza eskainiko zaie erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzeko.
- *Aisia hezitzailea:* astialdian ondo pasatzeaz gain, hezkuntza helburuak lortu nahi dira, hau da, bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak lantzea.
- *Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak:* benetako aukerak sortu eta dinamizatuko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dira haurrek eta nerabeek euren iritziak adierazi, proposamenak egin eta erabakiak har ditzaten.

- *Sorkuntzarako eta produkziarako bideak*: haurren eta nerabeen sormena eta produkziarako gaitasuna sustatu eta bideratuko da. Interesatzen zaizkien jarduerak eta proiektuak garatzeko aukerak sortuko dira.

Besteak beste, Zerbitzuko eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatutako jarduerak, antolatu gabeko jarduerak, lantegiak, ikastaroak, proiektzioak, ikuskizunak, hitzaldiak, irteerak, herriko ekimenetan parte hartzea, erabiltzaile ez diren haur eta nerabeei zuzendutako ekintzak, etab.

Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurreikusiko dira, modu askean jolastu, hitz egin edo atseden hartzeko.

Zerbitzuaren funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetzara arauak erabiltzaileek eta lan-taldeak elkarrekin adostuko dituzte.

Zerbitzuak sare lan-sistema komunitarioko kide, eragile eta dinamizatzaile izan behar du. Aukera eta bide ezberdinak ahalbidetuko dira haurrek eta nerabeek euren ingurua ezagutu dezaten, auzoko zein herriko ekintzetan parte hartu dezaten, eta eragile aktibo izan daitezen. Lan egingo da herriko eragile, talde eta norbanakoak ezagutu eta elkarlanean jarduteko. Sare lana bultzatuko da, Zerbitzu prebentiboa, integrala eta integratzailea izateko.

Euskara da zerbitzuko arreta eta lan hizkuntza. Euskararen aldeko jarrera positiboak eta euskal kulturaren aldeko lana bultzatuko da era iraunkorrean.

6.2. Zeharkako arreta.

Ibarrako haur, nerabe eta gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua planifikatutako espazioa, barnean antolatua eta besteekin koordinatua izan behar du. Horrela izateko, lan-taldeak funtsak ezarri beharko ditu.

6.2.1. Funtsatzea.

Hezitzaileek koordinatzailearekin batera parte hartuko dute zerbitzuaren funtsatzean, Ibarrako haur, nerabe eta gazteen beharrak identifikatu eta horiei erantzuteko. Zerbitzuko ingurunea ezagutu, errealitate berriak nolakoak diren hausnartu eta hartzaileen beharrak eta eskaerak identifikatuko dituzte. Zerbitzuaren gabeziak detektatu eta hobekuntzak proposatuko dituzte.

Haur, nerabe eta gazteez arduratzen diren beste eragileekin partekatuko dira Zerbitzuaren oinarriak eta lan egingo da haurrak, nerabeak eta gazteak kokatzeko tokiko politikaren lehentasunen artean.

6.2.2. Plangintza lana.

Zerbitzuak, gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena izaki, planifikatutako espazioa izan behar du, Ibarra, planifikazio-sistema argi bat behar du. Aldiro berrikusiko den sistemak beti izango ditu abiapuntu haur, nerabe eta gazteen beharrak, eta horien arabera helburuak zehaztuko ditu. Horrela, esku-hartze marko konpartituaren araberrako etengabeko planifikazio-zikloa izango du oinarrian: Helburu, programazio, ekintza eta ebaluazio jarraitua. Horiek guztiak haur eta nerabeen parte hartzearekin garatuko dira.

Planifikaziotik eratorritako programazioetan bermatu beharko da pertsonen eta komunitatearen definitutako beharrei erantzutea. Halaber, aldi berean, aipatutako zehar lerroei erantzun beharko zaie (euskara, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna, eta integrazioa) eta aurrera eramango diren ekintzek jarduera-eremuetan tokia izan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

beharko dute.

Planifikazioak, helburuez gain, Zerbitzuak garaturiko jarduerak jasoko ditu bere baitan (zuzeneko arreta, programazioak, barruko lanak...). Arreta berezia eskainiko zaio jarduerak behar bezala egituratzeari eta plangintza lanean eta erabakiak hartzeko garaian parte hartzeko aukera eskaintzeari.

Zerbitzuan hiru planifikazio egingo dira: ikasturtekoa, hiruhilekoa eta hilekoa. Plangintza Kultura eta Gazteria teknikariarekin adostu beharko da. Horretaz gain, proiektu espezifikoek euren planifikazio zehatzak izan beharko dituzte.

6.2.3. Ebaluazioa.

Ebaluazioa ezinbesteko tresna da, etengabe garatzen den prozesu bat, Zerbitzua ere etengabe egokitzen eta hobetzen joateko. Zerbitzuari eta inguruneari buruz informazioa lortzeko eta prozesatzeko egiten den guztia barne hartuko du.

Ebaluaziorako ere momentu ezberdinak aurreikusiko dira: eguneroko ebaluazioa, hiruhilekoa eta urtekoa. Eguneroko ebaluazioa egingo da dagokion eguneko fitxa betetzean. Hiru hilean behin, ebaluazio txostenak aurkeztuko dira udalean, eta dagozkien balioespenak egin ondoren, hurrengo hiruhilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Urteko txostenak ikasturte amaieran aurkeztuko dira.

Ebaluazio txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, jardueretako parte hartzea, baliabide materialak, ...), datu kualitatiboak (haur eta nerabeen asebetetze maila, jarrerak, balioespenak, genero perspektiba, ...) eta Zerbitzua hobetzeko proposamenak.

Aipatutako ebaluazio horiez gain, esleipendunak aurkeztu beharko du gastuen eta diru-sarreraren balantzea, zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagokiena. Balantze horiek hileroko aurkeztu beharko dira eta udaleko Gazteria sailak oniritzia eman beharko die.

6.2.4. Koordinazio lana.

Koordinazioa funtsezko zeregina da haurrak eta nerabeak sustatzeko zerbitzuetan. Haur eta nerabeen behar eta interesak ugari eta askotarikoak direnez, arlo eta eragile guztiekin batera elkarlana gauzatu beharko da, horiei erantzutearren.

Barne koordinazioa

Zerbitzuko lan-taldea astero bilduko da Zerbitzuaren jarraipena egiteko. Bilera horietan egindako esku-hartzea baloratuko da, plangintza errepasatuko da, antzemandako premiak aztertuko dira, eta oro har, Zerbitzuaren egunerokotasunari dagozkion gai eta atalak jorratuko dira.

Udalarekiko koordinazioa

Udalarekin bilera mota hauek burutuko dira:

- Hamabostero, Zerbitzuko jarraipen bilerak, Zerbitzuko hezitzaile-koordinatzailearen eta udaleko Kultura eta Gazteria teknikariaren parte hartzearekin. Beharren arabera, udaleko beste sail batzuekin ere bilduko dira (euskara eta hezkuntza, ingurumena, berdintasuna, kirolak,...).
- Hiruhilero, Zerbitzua ebaluatzeko bilera egingo da, Zerbitzuko hezitzaile-koordinatzailea,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

hezitzaileak, arloko zinegotzia eta udaleko Kultura eta Gazteria teknikariarekin.

- Urtero, ikasturtearen hasieran eta amaieran, Zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzeko bilera egingo da, Zerbitzuko hezitzaile-koordinatzailea, hezitzaileak, arloko zinegotzia eta udaleko Kultura eta Gazteria teknikariarekin.
- Haur, nerabe eta gazteei begirako lana burutzen duten udal zerbitzu eta programekin ere koordinazio uneak zehaztuko dira (Kale-hezitzaileak, oporretan euskaraz,...).
- Premia bereziak dituzten haurrei eta nerabeei eskaintzen zaien arretaren jarraipena egiteko, Zerbitzuko hezitzaile-koordinatzailea familiarekin, dagokion udal zerbitzuarekin (gizarte langilea, kale-hezitzaileak,...) edota kasuaren arabera dagokion beste profesionalekin (irakaskuntza, osasuna,...) koordinatuko da. Horrez gain, Zerbitzuan kezkak sortarazten dituzten haurrei eta nerabeei arreta berezia eskaintzeari begira, koordinazio bilerak burutuko dira udaleko Gizarte langilearekin.

Beste sistema batzuekiko koordinazioa

Herrian nahiz eskualdean, adin tarte berarekin lan egiten duten sistemekin, zerbitzuekin eta erakundeekin koordinatzeko sistema bat zehaztuko da, dagozkion helburuak eta maiztasuna alde biek adostu beharko dituzte.

Beste eragile batzuekiko koordinazioa

Koordinazioa sustatuko da haurrekin, nerabeekin eta gazteekin lotura duten eragileekin, Zerbitzuaren lanerako interesgarriak direnekin, eta oro har, komunitatean estrategikoak direnekin. Horiek guztiekin elkarlana burutuko da eta herri mailan modu sistemikoan lan egiteko eredia proposatuko da.

Lurralde mailako koordinazioa

Gaztematikako Hezitzaileen foroan parte hartuko du hezitzaile-koordinatzaileak. Era berean, aukeren, beharren eta baldintzen arabera, lan-taldeko hezitzaileek Gaztematikako hezitzaileen saio eta lan-taldetan parte hartuko dute.

6.2.5. Komunikazioa.

Zerbitzuaren zabalkundeaz esleipenduna arduratuko da, beti ere, Udalaren irizpideak jarraituz eta Gazteria eta Kultura sailaren onespenerekin. Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan-ildoak, ...) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak, ...) eskainiko zaie hartzaileei, eragile sozialei eta herritar orori.

Komunikazio plan bat zehaztuko da, eta horretan, zein informazio zabaldu, noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehatzetan,...), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea,...) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku-orriak, sare sozialak,...) zehaztuko da.

Informazio euskarri ezberdinetan (kartelak, esku orriak, sare sozialak,...) Gazte Zulo logotipoa eta udal armarrria txertatu beharko da, Udal Zerbitzua dela garbi azaltzeko.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Kultura eta Gazteria Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.2.6. Ezagutzaren eta kalitatearen kudeaketa.

Lantaldeak parte hartuko du Zerbitzua hobetzeko ekimen eta prozeduretan, eta posible diren kasuetan, prozedura horiek estandarizatu egingo ditu.

Horrez gain, Zerbitzuko lan-taldeak praktika onak identifikatu eta sistematizatuko ditu, Gaztematikaren barruan zabaltzen eta partekatzen.

Oro har, Zerbitzuko langileen etengabeko prestakuntza esleipendunaren erantzukizuna izango da. Hala ere, Udalak eskaini ahalko die langileei aholkularitza edota prestakuntza lehentasunezko zat jotzen dituen zenbait gairen inguruan.

Esleipendunak Udaletik zein Aldunditik hezitzaile edo elkarte/enpresari zuzenduriko lan talde edo lan saio eta prestakuntzetan parte hartzeko konpromisoa hartu beharko du.

6.3. Zehar lerroak.

Zerbitzuko zehar lerro nagusiak izango dira berdintasuna, kultur aniztasuna eta euskararen sustapena. Jarduera guztietan eta jarraikortasunez garatuko dira, jarraian azaltzen diren irizpideak jarraiki.

Zehar lerroak txertatuko dira Zerbitzuko plangintzan eta ebaluazioan. Kontuan hartu beharko dira arlo horietan Udalak onartuta dituen protokoloak, lan ildoak eta planak.

Berdintasuna, kultur aniztasuna eta euskara elkar osatu eta indartzen diren printzipioak dira eta era berean, Zerbitzuaren jardunbidea eta ekintzak orientatu eta dinamizatuko dituzte.

6.3.1. Berdintasuna

Kontuan hartuko da zer eragin eta ondorio dituen sexu bereizketak haur eta nerabeen sozializazio prozesuan eta genero ikuspegia txertatu beharko da Zerbitzuaren planifikazio, esku hartze eta ebaluazio lan guztietan. Azken helburua izango da garapen integrala bultzatzea, generoaren araberako estereotipo eta rolak baztertuko dituen eta baita bereizkeria mota oro ere.

Era berean, haur eta nerabeen errealitatearen azterketan ezinbestekoa izango da genero ikuspegia aintzat hartzea, hau da, neska eta mutilen behar eta egoera ezberdinak jasotzea.

Zerbitzuan jarduera hezkidetzaillea egiten dela bermatuko da ondorengo alderdiak garatzerakoan: harremanak, komunikazioa, barne antolakuntza, espazioaren kudeaketa eta erabilera, esku hartzeko edukiak eta material pedagogikoak.

6.3.2. Kultura aniztasuna

Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, sexua, jatorria, sinesmena, gaitasuna, etab.) eta tratu eta aukera berdintasuna bermatuko da. Sustatuko da norbanako guztiak barnean sartzea eta elkarri eragitea, elkarrekin bizitzen ikastea eta gozatzea bultzatuz.

Zerbitzua ahaleginduko da arreta ematen haurren eta nerabeen premien eta gaitasunen arabera.

Zerbitzuan arreta berezia eskainiko zaie zailtasunak edo behar bereziak dituzten haur eta nerabeei (gizarte zailtasun egoerak, aniztasun funtzionala, jatorriz beste kultura batekoak direnak,...).

Zehar lerro honen garapenean elkarlana sustatuko da udaleko Gizarte Zerbitzuekin, kale hezitzaileekin,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ikastetxearekin, etab.

6.3.3. Euskararen sustapena

Euskara izango da Zerbitzuko hizkuntza. Batez ere erabilera soziala indartzeko lana egingo da, haur eta nerabeei euskaraz bizitzeko aukera erreala eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: langile elebidunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazioa, etab.

Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontutan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, bai erabiltzaile eta langileen artean baita haurren eta nerabeen artean ere.

Zentzu berean, Zerbitzutik etengabeki bilatuko da haur eta nerabeek euskararekiko bizipen eta jarrera positiboak izatea, eta euskal kultura ezagutzea.

7. ZERBITZUKO LANTALDEA ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

7.1. Zerbitzuko lantaldea.

Zerbitzua era egokian eskaini ahal izateko, esleipendunak lantalde misto egoki bat jarriko du. Langile horiek haur eta nerabeen garapen pertsonal eta sozialean laguntzeko, parte-hartzea bultzatzeko eta komunitatean integratzeko, beste arloko profesionalekin batera gizarte-hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erreferenteak dira.

Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izango da agiri honetan jasotzen diren zerbitzuen beharrianak estaltzeko.

Esleipendunak, nolahi ere, sor daitezkeen ordezkapenak bermatuko ditu, titularrak betetzen dituen baldintza berberak betetzen dituzten pertsonekin. Hasierako lan taldean gertatzen diren aldaketa guztiak Udalaren oniritzia beharko dute.

Lan-taldea honako hauek osatuko dute:

- Hezitzaile-koordinatzailea (jardunaldi osoan)
- 2 Hezitzaile (jardunaldi erdian)

Zerbitzua eskainiko duten langileei Gipuzkoako Esku-Hartze Sozialerako Hitzarmen Kolektiboaren 2 taldean jasotako baldintzak ezarriko zaizkie.

7.2. Langileen prestakuntza baldintzak.

Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte Hezkuntzako Diplomatura edo Gradua izatea, edo Profesionalen Elkargoren batek gaitua izatea.
- 3. Hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea.
- Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betetz, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute langile guztiak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Hezitzaile-koordinatzaile lanposturako:
 - Haur eta gazteen aisialdiko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa (zuzendari titulua).
 - Haur eta gazteen aisialdian zuzendaritza eta koordinazio lanetan aritu izanaren eskarmentu kreditatua.
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun alorrean formazioa izatea.

7.3. Langileen funtzioak.

7.3.1. Hezitzaileak

Besteak beste, hezitzaileen funtzioak honako hauek izango dira:

- Erabiltzaileei arreta zuzena eskaini.
- Haurren eta nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartu.
- Plangintzaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu.
- Haur eta nerabe guztien parte hartzea sustatu.
- Haurren ataleko erreferenteak izan.
- Zerbitzuaren presentzia beste espazioetan garatu.
- Komunitatean parte hartu eta haurren eta nerabeen protagonismoa sustatu.
- Zerbitzuaren komunikazio beharretan eta zabalkundearen lagundu.
- Sare-lana bultzatu, hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten gainerako sistema eta eragileekin elkarlana sustatuz.
- Zerbitzuaren antolakuntzan eta garapen teknikoan parte hartu.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko lantaldeetan parte hartu.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko konpromisoa hartu.
- Zerbitzuaren helburuak gauzatzeko lan egin.

7.3.2. Hezitzaile-koordinatzailea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hezitzaileen eginkizun guztiez gain, honako hauek izango ditu:

- Nerabeen eta gazteen ataleko erreferentziatzko hezitzailea izan.
- Zerbitzuko lantaldearen koordinazioa egin.
- Lantaldeko hezitzaileei laguntza teknikoa, orientazioa eta bide-laguntza eman enpresako koordinatzaile teknikoarekin batera.
- Zerbitzuaren etengabeko jarraipena gauzatu.
- Zerbitzuaren funtsetzea eta beharren ebaluazioa bideratu.
- Zerbitzuko funtzionamendua eta antolaketa orokorra koordinatu.
- Sistemako zerbitzu desberdinen arteko etengabeko koordinazioa mantendu.
- Esku hartzearen analisi orokorra gidatu eta bere jarraipena egin.
- Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu enpresako koordinatzaile teknikoarekin batera.
- Zerbitzuko lantaldearen prestakuntza iraunkorreko plangintza koordinatu.
- Zerbitzutik burututako ekimenak, egitarauak eta ekintzak ebaluatzeko informazioa eta balorazioak jaso, lantaldearekin batera landu eta txostenak Udalari aurkeztu.
- 6.2.3. atalean zehaztutako txostenak egin eta hilero diru-sarreraren eta gastuen likidazioa aurkeztu.
- 6.2.4. koordinazio atalean zehaztutako bileretan parte hartu.
- Zerbitzuaren inguruko zabalkundeaz arduratu, Udalaren irizpideak jarraituta eta Kultura eta Gazteria sailarekin adostuta.
- Sare-lana bultzatu, eraiki eta sustatu.
- Lan sistema komunitarioan aktiboki parte hartu.
- Zerbitzuan ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea txertatu.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7.4. Esleipendunaren betebeharrak.

Esleipendunak Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko udal zerbitzuen kudeaketan gutxieneko hiru urteko esperientzia kreditatu beharko du.

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera. Xedapen horiek betetzen ez badira, kontratua ezingo da formalizatu.

171/2004 Errege Dekretuaren bidez, (31/1995. Legeko 24. Artikulua garatzekoa), Laneko arriskuen prebentziorako araudian ezarritakoaren arabera, lanleku berean langileak dituzten enpresak, informazioa trukatu beharko dute aldebereotasun horretatik eratorrita sor daitezkeen arriskuak prebenitze aldera. Udalak, esleipendunak, eta leku berean aldi berean aritzen den beste edozein enpresa bakoitzak, lanleku berean enpresa jardunak aldi berean egitetik erator daitezkeen arriskuen berri eman beharko die bere langileei.

7.5. Udalarekin harremanetarako arduraduna.

Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko arduradun bat izendatuko du. Enpresako arduradun honek, gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du.

Enpresak izendatutako arduradunak enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.

Enpresako harremanetarako arduraduna eta Udaleko Teknikaria arduradunaren artean koordinazio maiztasun finkoa adostea ere posible izango da.

7.6. Kontratututako langileen eta bestelako agirien aurkezpena.

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzaren alta emana izatea egiaztatzen duen agiria
- Lan kontratuaren kopia
- Eskatu diren beharrezko prestakuntza betetzen dutenaren agiria (titulazioa, eskarmentua, hizkuntza gaitasuna...)

7.7. Bestelako betebeharrak.

Ekipamenduak ezin izango dira esleipendun enpresaren egoitza soziala izan, ez eta ekipamenduak enpresako zereginetarako erabili.

7.8. Subrogazioa

Kontratu hau subrogazio gai izango da 2017ko otsailaren 21an GAOn (36) argitaraturiko Gipuzkoako Esku hartze solizialerako hitzarmenaren 54. Artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz.

Esleipenduna behartuta dago agiri osagarriko lan harremanen enplegatzaile modura subrogatzera; SPKTBaren 120 art.ak xedaturikoari jarraiki, informazio hau eskatzen duten lizitatzailerei emango zaie, lan kostuen ebaluazioa egin ahal izateko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

8. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK.

8.1. Azpiegiturak.

Haurren zein Nerabeen Atala azkue auzoan kokatzen den “Gazte Zulo” udal lokalean emango dira nagusiki. Enpresa esleipendunak, haur, nerabe eta gazteekin garatu behar dituen betebeharrak aurrera eramateko ahaleginak egingo ditu ekipamenduek eta Ibarako espazio publikoek eskaintzen dituzten aukera anitzak baliatzeko eta optimizatzeko.

Lokalaren funtzionamendu eta mantentze gastuak (garbiketa, argindarra, ura, gasa, etab.) Udalaren kontura izango dira.

Udalak ekipamendua beharrezkoak diren baliabide material guztiekin hornituko du, Zerbitzua modu egokian eskaini ahal izateko.

Inbentarioa

Esleipendunak hasierako inbentarioa egingo du Udalarekin batera, aipatutako baliabide material guztiak jasoko dituena. Kontratuak dirauen bitartean, inbentarioa eguneratuta eduki beharko du esleipendunak eta gehitzen joango da erosten diren elementu inbentariagarri guztiak.

Kontratua amaitzen denean, ondare guztiak geratuko dira Ibarako Udalaren esku.

Zerbitzuko instalazio eta materialak egoera onean eduki behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili.

8.2. Bitarteko materialak.

Zerbitzuko ekintzak burutzeko eta behar den materiala erosteko urteko diru kopuru bat zehaztuko da lizitazio prezioaren barruan. Zenbateko hori finkoa izango da eta ezin izango da behera hobetu. Kopuru hori derrigor erabili beharko du esleipendunak ekintzetan edota material erosketan, eta 6.2.3. puntuko azken paragrafoan azaldu bezala, gastu horiei dagozkien zuriak eta ordainagiriak hilerok aurkeztu beharko dizkio Udalari, diru sarreraren balantzearekin batera.

Inbentariagarria den edozein erosketa egin aurretik, Udaleko Kultura eta Gazteria teknikariaren oniritzia eskuratu beharko du esleipendunak.

9. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK.

9.1. Egutegiak.

Zerbitzua, gutxienez, irailaren erditik uztailaren erdira bitartean eman beharko du arreta zuzena. Horrela, lan taldeak irailaren hasieratik erdi aldera planifikatu ahal izango du zerbitzua, eta ebaluatu, berriz, uztailaren erditik amaierara.

Jaiegunak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratutakoak) Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak Gipuzkoako Lurraldearentzat ezartzen dituen 12 jaiegunak izango dira. Jaiegun horiei tokiko esparruko bi jaiegunak gehituko zaizkie.

Bai egutegia, bai ordutegia, programa berezien edo jarduera jakinen ondorioz aldatu ahal izango dira. Zerbitzuaren



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

erabileraren edo erabiltzaileen proposamenen arabera, egutegia eta ordutegiak aldatu ahal izango dira, eskaera berrietara egokitzeko, baina, horretarako, Udalaren oniritzia izan beharko da.

Egutegiak irailaren hasieran aurkeztuko zaizkio Udalari.

Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporraldietan eskaintza berezia egingo zaie haurrei eta nerabeei, eskola-egutegia kontuan izanik.

Esleipendunak proposamena egingo du, eta Udalak proposamen hori onartu beharko du.

Hala ere, lan honetarako Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari buruzko hitzarmen kolektiboa hartuko da oinarri eta bertan zehazten den moduan, bi langilek 796 ordu egin beharko dituzte bakoitzak (kontutan izanik jardunaldi erdiz kontratatzen direla) eta beste langileak 1592 ordu egin behar ditu (kontutan izanik jardunaldi osoz kontratatzen dela), astelehenetik larunbatera, eta 41 egun naturaleko oporraldia, kontuan harturik abuztua itxita egongo dela zerbitzua. Opor egunetan ez da beharrezkoa izango langileen ordezkapena egitea (opor egunetan zerbitzua ez baita emango). Aldiz langileetako bat lanera ez datorren egunetan langile hori enpresak ordezkatu beharko du; beti bi langilez osaturiko taldea egon beharko delarik zerbitzua emanaz.

9.2. Ordutegiak.

Eskola garaian, zerbitzuaren ordutegia, gutxienez, ondorengoa izan beharko da:

- Haurrentzako Zerbitzua: 3 ordu egunean, astelehenetik ostegunera, hortaz, 12 ordu astean
- Nerabeentzako Zerbitzua: 4 ordu egunean, ostirala eta larunbatean, hortaz, 8 ordu astean

Egutegiaren eta egiten diren ordutegien urteko ebaluazioaren arabera, aldaketak proposatu ahal izango dira hurrengo ikasturtetarako.

Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporraldietan eskaintza berezia egingo zaie haurrei eta nerabeei, eta ondorioz, Zerbitzuko ordutegia ere eskaintzara moldatuko da.

10. KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

a) Hizkuntza-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute langile guztiek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurkeztea.

2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

b) Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehenetsua emanez, betiere administrazioarekin alde aurretik adostuta.

c) Herritarrekiko erabilera:

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehenetsua emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

d) Administrazioarekiko erabilera:

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

11. IKUSKAPENA.

Udalak ikuskatu dezake Zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko.

Udalak ikuskatu ahal izango du esleipendunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez, Zerbitzuari adskribitutako lokalaren egoerari dagokionean nahiz gainontzeko aspektuei dagokienean (ordutegiak, egutegiak, etab.).

Administrazioak Zerbitzua kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak etengabe ikuskatu behar du barrutik.

I. ERANSKINA

PERTSONALAREN ZERRENDA

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	KATEGORIA	ANTZINATASUNA	LANALDIA	KONTRATUA	OHARRAK
1	HEZITZAILEA	2015-07-20	ERDIA	501	
2	HEZITZAILEA	2016-11-02	ERDIA	200	